

BIRRAITONA ARRANTZALEA

1957. urteko otsaila zen, kalean izugarrizko hotza egiten zuen eta Bermeoko etxe zahar bateko logelan Felix zegoen ohean etzanda, hiltzeko zorian. Felix gizon ezkondua zen baina emaztea pare bat urte lehenago hil zitzaion eta ez zuen seme alabarik. Berarekin Miren izeneko andre gazte bat zegoen. Miren idazlea zen eta Felixen istorioa entzutean, horri buruzko liburu bat idaztea pentsatu zuen.

Biak isil-isilik zeuden, Miren lotsatuta zegoen, ezagutzen ez zuen gizon baten etxean zegoen, eta, are okerrago, gizona hiltzorian zegoen baina nola edo ala hitz egiten hasi beharra zegoen.

-Kaixo, Felix, ni Miren naiz. Zure lagun Josek esango zizun bezala, zure birraitonaren istorioa kontatu dit eta asko harritu nintzen. Horregatik etorri naiz zure etxera, istorioa zure ahotik entzuteko eta baimena ematen badidazu liburu bat idazteko.

-Bai, Josek esan dit etorriko zinela. Eskerrak eman nahi dizkizut liburua idatzi nahi izateagatik, asko pozten naiz zu bezalako neskatila bati bizitza osoan kontatu izan dudana istorioa hainbeste gustatu izana eta benetan gertatu zela sinistu izana. Beste guztiek oso zaharra naizela eta, ez didate inoiz sinistu, baina nik badakit egia dela eta benetan nire birraitona Antoniori gertatu zitzaioela.

-Has zaitez nahi duzunean.

"1689. urtean gertatu zen. Antonio etxean zegoen, arrantzatik bueltan oso nekatuta baitzegoen. Aulkian eserita zegoela pixkanaka-pixkanaka lokartzen hasi zen, baina bat-batean, Peru atean agertu zen eta Antoniok saltotxo bat eman zuen hartutako sustoagatik.

-Aupa, Peru! Hau sustoa eman didazuna!

-Barkatu, motel! Ea arrain asko arrantzatu duzun galdetzera etorri naiz, baina nahi baduzu geroago etorriko naiz horrela siesta egin dezakezu.

-Ez, lasai. Ba, egia esan, ez dut ezer arrantzatu, hilabete daramagu arrainik gabe eta dagoeneko desesperatua nago. Nire osabarekin baleak ehizatzerara joatea pentsatu dut, horrela edukiko dut zeregina.

-Baleak ehizatzerara? Nora baina?

-Ba, egia esan, ez dakit, baina urrutira bai behintzat, osaba joaten denean hilabeteak pasatzen ditu itsasoan.

-Ideia ona iruditzen zait. Neu ere joan naiteke?

-Bai. Oraintxe bertan esango diot.

Antonio lasterka joan zen osabarengana, galdetu eta baietz erantzun zion. Berrero ere saltotxo bat eman zuen baina oraingoan pozez. Peruri albistea ematera joan zen eta kontatzean biak saltoka eta barreka hasi ziren, orduan bertatik pasatzen ari zen andre batek ikusi eta honek ere barre egin zuen.

-A ze pareka karakola eta barea!

Itsasoratzeko eguna iritsi zen dagoeneko eta Antonio eta Peru zirrarez josiak zeuden. Baleontzi erraldoia ikustean ahoa zabal-zabal geratu zitzaion biei. Itsasontzira igo zirenean dena goitik behera begiratu zuten eta konturatu orduko portua txiki eta urrun ikusten zuten. Antonioaren osaba baleontziaren kapitaina zen eta barkuko

tripulante guztiei aginduak ematen hasi zen. Antonio eta Peru ikusi zituenean beraiengana hurbildu zen.

-Zer, mutilak, lanerako prest?

-Bai! Zer egitea nahi duzu?

-Momentuz has zaitetze zikinkeria hau pixka bat garbitzen, mesedez!

-Bai jauna!

Horrela pasa zituzten pare bat hilabete, barkua garbitzen, lurrera iritsi ziren arte. Ternua izena zuen eta Antoniok ez zuen hango hizkuntza ulertzen, baina osabaren ondoan babesturik sentitzen zen. Barkuko jendeak Ternuako biztanleak ezagutzen zituztela zirudien eta beraiei jarraitzea erabaki zuten. Andre nagusi baten etxera zihoazen eta bertatik janari mordo bat eramaten zuten barkura. Antoniok eta Peruk haragiz beteriko zaku bat hartu eta itsasontzira eramane zuten. Osabak bertan gelditzeko esan zieten, laster itsasoratuko zirela eta. Denbora azkarrago pasatzeko txistek kontatzen hasi ziren eta bien barreak lurretik ere entzuten ziren.

Itsasontzia abian jarri zen. Antonio eta Peru txistek kontatzen ari ziren oraindik, eta inguruan jende pila zeukaten haiei entzuten eta barrez lehertzen. Bat-batean, itsasoan balea urdin eta erraldoi bat ikusi zuten eta korrika joan ziren txalupak eta arpoiak prestatzera. Baleontzi handitik 4 txalupa irten ziren eta balearengana hurbildu ziren. Arpoiak ahalik eta indar gehienez jaurti zituzten, baina ez zuten balearen azal lodia zeharkatu, inoiz ikusi gabeko balea zen. Beste baleak baino askoz handiagoa zen, kolore ilunagoa zuen eta oso azkar egiten zuen igeri. Arrantzaleak baleontzira bueltatu ziren, ikaragarriko beldurra ematen zien bale horrek. Zerbait egin behar zuten, balea ehizatzen joan ziren eta ez zeuden prest esku utzik bueltatzeko. Berriz ere, txalupetara igo eta arpoi handiago batzuekin eraso zuten eta oraingoan baleari min ematea lortu zuten, baina horrek ez zuen ezer onik ekarri, balea haserrarazi egin zuten. Balea urruntzen ikusi zutenean poztu egin ziren, baina bat-batean buelta erdi eman eta baleontzirantz zetorren ziztu bizian. Konturatu orduko balea bertan zen, buztana luzatu, baleontzia indar handiz jo eta erditik puskatu zuen. Itsasontzia hondoratzen zebilen, arrantzale askok bizia galdu zuten eta beste asko edozein gauzari heldu nahian zebilen.

Denbora batera, balea joana zen, baina baleontzia urez guztiz estalita zegoen. Antonio galduta zebilen, ez zekien zer egin eta ez zuen inor ikusten. Peru bilatzen hasi zen, baina ez zuen inon ikusten eta ur azpian begiratzea bururatu zitzaion. Arnasa sakon hartu eta ur azpian sartu zen. Batera eta bestera begira ari zela beso bat ikusi zuen, harengana hurbildu eta Peru zela ohartu zen. Ezin zuen sinetsi, hilda zegoen, egur zati handi batek zeharkatzen zuen bular aldetik. Ito behar zuela sentitu zuen, baina gorantz igeri egin eta arnas sakona hartu zuen. Berriz urpera sartu zen ea norbait aurkitzen zuen, baina ez zuen zortirik izan, denak hilda zeuden. Bera zen bizirik geratzen zen bakarra. Ez zekien zer egin, ez zekien non zegoen, eta, txarrena, ez zekien bizirik irtengo ote zen. Ternuraino igerian joatea pentsatu zuen, eta martxan jarri zen. Egunak pasa zituen itsasoan galduta eta gosez hiltzen zegoen. Azken esfortzua egin beharra zeukan handik bizirik irten nahi bazuen. Goiz argi batean lur zati bat ikusi zuen eta martxa arindu zuen bertara iristeko. Bide erdian zegoela konortea galdu zuen. Buruak birak ematen zizkion, ez zegoen hilda, baina bizirik ere ez. Mundu galdu batean zegoela iruditzen zitzaion. Begiak ireki zituen arte.

Emakume bat ikusi zuen. Ez zuen bere hizkuntza ulertzen baina euskara ere bazekien.

-Non nago?

-Ternuan zaude. Zure baleontzia hondoratu egin zen eta zu zara bizirik iraun duen bakarra, ametsetan ari zinenean behin eta berriz errepikatzen zenuen. Hemengo arrantzaleak joan dira baleontzia aurkitzera baina ez dute ezer aurkitu, oso arraroa da. Bihar eramango zaituzte zure herrira, orain egon lasai.

-Ez duzuela baleontzia aurkitu? Bale erraldoi batek erditik apurtu zuen, han nonbait egon behar du. Ezinezkoa da ez aurkitzea baleontzia oso handia baitzen.

-Egon lasai, ez genizun ezer esan nahi zu ez izutzeko, baina ikusi zenuten bale hura espezie bakarra da eta dinosauroen garaikoa da. Inork ez daki balea hori existitzen denik, horregatik eskatzen dizudan bakarra inori ezer ez esatea da. Eta itsasontziaren kontuaz hasi garela, bale horrek mugitzen ikusten duen guztia jaten du eta uste duguna da, itsasontzia eta barruan zeukan guztia berak jan zuela.

Antoniok ez zekien zer esan. Buruaz baiezkoko keinua egin zuen eta lo geratu zen.

Hurrengo egunean esnatu zenean, gizon batzuk bere bila etorri ziren eta beraien itsasontzian sartu zuten. Erraldoia zen, inoiz ez zuen horrelako itsasontzirik ikusi. Bertan lagun handiak egin zituen, bizitza osorako diren lagun horietakoak.”

-Hauxe da istorioa. Nire familian ahoz aho pasatu den istorioa. Badakit jarraipena duela baina nork daki honen ondoren zer gertatu zen, balearen sekretua ondo gorde zuen edo norbaiti esan zion. Bakoitzak gehien gustatzen zaion amaiera asma dezala eta horrela denak kontentu. -Ahotsa indar gabe geratzen hasi zitzaion.

-Milesker, Felix. Asko gustatu zait zure ahotik entzutea, eta saiatuko naiz ahalik eta hoberen idazten. Liburu hau zuri dedikatuko dizut.

-Eskerrik asko. -Esan zuen ahots ahul eta fin batekin, begiak astiro-astiro ixten zitzaizkiola.